

Abertzaletasuna eta praktikotasuna

Euskaldunon Egunkaria, 1993-06-22: 2.

Beste bidagurutze batetan dago Euskal Herria: herri bezala ala partidu bezala jokatu. Orain artean banandu gaituena Estatu guztiahalduna izan bada, orain Europa da. Sentsazioa, betikoa; zatiketako ahulezian etsi. Hau da egiazko auzia. Bidetxurrak anitz eta tentagarriak dira, eta Euskadi eraikitzeke zaila. Ados nator, noski. Baina, bestalde, abertzaletasuna ez da praktikotasuna. Sabin Arana ez zen hau aldarrikatzen jarri, hala izanez gero ahaztua zegoen dagoeneko. Sarri aurkitu gara herri bezala erabaki zailaren aurrean. Askotan pentsatu dut. Espainiako Errepublika suntsitzekotan leherrarazi zuten altxamenduaren aurrean historiak zer kinketan jarri gintuzten. Geure abertzaletasunaren kontzientzia, Arana Goiri hil eta hogeita hamahiru urtera (1903-1936) egiatan egosten ari zenean, Armadagandik eta Elizagandik joatea errezago zen gorriska eta arriskugarria zen askatasun bidetik jotzea baino, eta halere gure herri zaharrak 32 urteko gizon gazte baten eskuetan lema uztea erabaki zuen. Izan genituen aukera gaitzetsi zutenak, eta oraindik ozenkiago 40 urteko nekaldi izugarriak iraun zuen artean. Baina ongi erakutsi zuen. Euskadik bere borrokaren zentzua, eta Agirre buru zuen Herria eta Europak eta Mundu guztiak ezagutu zuena, eta honek eman zigun garai hartan, eta ematen digu gaur ere, zilegitasuna munduaren aurrean askatasuna berreskuratzeko. Batasunean ezina bada ere, gure arteko tolerantziaz egindako puntuetan adostasuna lortuaz!, pausoz pauso. Eta gaurko giroan bide praktikoa nahi duen euskalduna entrega dadila zuzenean Madrilen.